

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AIARAKO UDALA

Euskara ikasi eta hobetzeko 2018rako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak

Udal honek, 2018ko azaroaren 09ko 2018/541 Alkatetza Dekretuaren bidez, euskara ikasi eta hobetzeko 2018rako laguntzak emateko deialdia eta oinarri arautzaileak onartu ditu (2017ko urritik (hura barne) 2018ko irailera arte (hura barne) egindako ikastaroek jasoko dute dirulaguntza).

Urriaren 1eko 39/2015 Legearen 45.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, oinarri horiek argitaratzen dira jendeak ezagut ditzan.

Euskara ikasi eta hobetzeko 2018rako laguntzak emateko oinarri arautzaileak

1. artikulua. Xedea eta helburua

Oinarri hauen xedea Aiarako Udalak 2018. urtean Aiara udalerrian bizi diren pertsona ekin-tzaileei euskara ikasi eta hobetzeko laguntzak emateko prozedura arautzea da.

Laguntzak norgehiagoka araubidearen bidez emango dira.

Laguntzak emateko dirulaguntza jaso dezakeen gastua hartuko da kontuan, eta araudi honetan ezarritako haren ehunekoa emango da.

Dirulaguntza jaso dezakeen gastua izango da klaseei dagokien matrikularen zenbatekoa; ez da inolaz ere dirulaguntzarik emango mantentzeko, ostaturako, garraiorako, materialerako..., "Egonaldiak familia euskaldunetan" programarako ezarritakoa izan ezik.

Dirulaguntza hauek euskara ikasi eta hobetzeko laguntzak emateko ordenantza erregulatzailearen pean egongo dira. Ordenantza hori Aiarako Udalak onartu eta 2009ko azaroaren 13an argitaratu zen 130. zenbakia duen ALHAOn.

Halaber, hauen pean ere egongo dira: Aiarako Udalak onartutako udal dirulaguntzak emateko ordenantza erregulatzaile orokorra, otsailaren 7ko 3/1997 Foru Araua, Arabako Lurralde Historikoko Dirulaguntza eta Transferentziei buruzkoa, Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/03 Lege Orokorra, Toki Korporazioen Zerbitzuen araudia eta dagokien legedi osagarri guztia.

2. artikulua. Aurrekontu zuzkidura

Kontzeptu hau dela eta ematekoak diren laguntzen zenbatekoa ez da, guztira, 5.901,20 euro baino gehiago izango, eta 2018ko indarreko aurrekontuaren 335.480.003 partidaren kontura finantzatuko da.

3. artikulua. Laguntzen zenbatekoa eta dirulaguntzaren muga

a) Zenbateko hauek izango dira dirulaguntzaren xede:

– HABEk homologatutako euskaltegietan edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketak: ehuneko 75.

– Udalerrian bertan ikasteko taldeak udalaren partaidetzaz: ehuneko 75.

– "Egonaldiak Familia euskaldunetan" programako egonaldiak: ehuneko 75.

Ikastaroen kasuan, laguntzaren ehunekoa udal honi urteko dirulaguntza eskatu aurreko urteko urritik (hura barne) dirulaguntza hori eskatzen den urteko irailera arte (hura barne) egindako ikastaroaren edo ikastaroen matrikulari dagokio.

Udalaren urteko aurrekontuetan xede horretarako partidan dagoen kopurua egiaztatutako eskaera guztiak betetzeko aski ez balitz, proportziozko banaketa egingo da baldintzak betetzen dituzten eskatzaile guztiak laguntzaren kontzeptuan matrikularen kostuan dagokion proportziozko ehuneko bera jaso dezaten.

b) HABEk homologatutako euskaltegieta edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikasketen kasuan, 1etik 12rako euskalduntze prozesuko urrats bakoitzagatik behin baino ez du dirulaguntza jasoko eskatzaile bakoitzak bere euskalduntze prozesu osoan, eskatzaileak urrats hori gauditu duela frogatu ondoren. "Egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, guztira, pertsonako hil biko egonaldirako dirulaguntza emango da gehienez, eta egonaldi hori 5 urteko epean bete beharko da gehienez. "Egonaldiak" egonaldi bati dagokion dirulaguntza egonaldia egin zen urteari dagokion eskatzeko epean baino ezingo da eskatu.

c) Beste erakunde batzuen laguntzak edo dirulaguntzak egonez gero, kasu bakoitzerako hitzartutako ehunekoa emango da, beste erakundeen dirulaguntza jaso ez duen matrikularen kostuari dagokion zatitari aplikatuta.

d) Barnetegi batean ikasi bada, klaseen kosturako baino ez da dirulaguntzarik emango, eta ikasleak ordainduko ditu ostatua eta mantenua.

Dirulaguntzen guztizko zenbatekoak, beste erakunde publiko edo pribatu batzuetatik xede berarekin lortutakoak barne, ezingo du inolaz ere onuradunak egindako ikastaroaren kostua gauditu.

Gehienez 2.000,00 euroko laguntza ezartzen da pertsona baten euskalduntze prozesu osorako, halako moldez non pertsona batek Aiarako Udaletik xede horretarako jaso dezakeen zenbateko metatuak ez duen muga hori gaudituko.

4. artikulua. Onuradunak. Dirulaguntza eskatzeko baldintzak eta frogatzeko modua

Laguntzen onuradun izateko, baldintza hauek bete behar dira:

a) Aiara udalerrian erroldatuta egotea, gutxienez dirulaguntza jasoko duen ikastaroa hasi aurretik sei hilabetez jarraian, eta udalerrri horretako egoiliarra izatea.

b) Ikastaroan matrikulatzean 16 urtez gorakoa izatea eta, "egonaldiak familia euskaldunetan" programaren kasuan, programa horretan bertan parte hartu ahal izateko ezarritako gutxieneko adina izatea.

c) Euskara 1. urratsetik 12.era, biak barne, ikasteko matrikulatuta egotea HABEk homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroyen batean, edo udalerrian bertan udalaren partaidetzaz era daitezkeen ikaskuntza taldeetan.

d) Barnetegi bat egiten bada, klaseetarako baino ez da dirulaguntzarik emango, eta ikasleak ordainduko ditu ostatua eta mantenua. Beraz, kasu horietan, udalari aurkeztuko zaion matrikularen ziurtagirian bananduta agertu beharko dira irakaskuntza gastuak eta mantenu eta ostatukoak.

e) Hautatutako ikastaroa, gutxienez, euskalduntze edo alfabetatze urrats baten parekoa izan behar da.

f) Homologatutako euskaltegi edo autoikaskuntza zentroetan egindako ikastaroen kasuan, ikastaroan gauditu diren euskalduntze urratsek baino ez dute dirulaguntza jasoko, eta horretarako banaka aztertuko da haietako bakoitzean lortutako emaitza; hortaz, aurkezten diren ziurtagirietan emandako urrats bakoitzari buruzko informazio hori (ganditua ala ez) agertu beharko da. Halaber, emandako urrats bakoitzaren gaineko klasera joateari buruzko informazioa eman beharko dute ziurtagiriek, haietako bakoitzean emandako orduak eta joandako orduak zehaztuz.

Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz era daitezkeen ikaskuntza taldeen kasuan, gutxienez ehuneko 80ko joatea beharko da dirulaguntza eskuratu ahal izateko eta ziurtagiriek guztira joandako orduetarako buruzko informazioa eman beharko dute.

g) "Egonaldiak familia euskaldunetan" programan parte hartzea: guztira, pertsonako hil biko egonaldiak dirulaguntza emango da gehienez, eta egonaldi hori 5 urteko epean bete beharko da gehienez.

h) Foru ogasunarekiko zerga betebeharrak eta gizarte segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

i) Aiarako Udalaren diru kutxetan egin beharreko ordainketak egunean izatea.

j) Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira xede bererako jaso daitezkeen beste dirulaguntza edo laguntza batzuekin. Eskabidearekin batera xede berbererako beste laguntza edo dirulaguntza eskaerak daudenetz adierazi beharko da eta, egonez gero, egindako eskabideen fotokopia erkatuak nahiz ebazpenen fotokopia erkatuak (onartua -kopurua sartuz- / ukatua), edo ebazpenaren zain egotearen adierazpena aurkeztu beharko dira. Beste dirulaguntzen kontuaren jarraipena egingo da berariaz eta onuradunak eskatzen zaizkion datuak eman beharko ditu.

k) Eskaeran jaso beharreko datuen edo agiriren bat ez bada ematen edo faltua bada, eskaera baliogabetu egingo da; horrez gain, egileei erantzukizuna eskatu ahal izango zaie.

Ezin izango dira onuradun izan Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13. artikuluan jasotako egoeraren batean daudenak.

5. artikulua. Eskabidearekin batera aurkeztu behar diren agiriak

Agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Eskabide inprimakia eskatutako datu guztiekin, beste dirulaguntza eskaerak egotearen edo ez egotearen adierazpena barne eta, egonez gero, eskaeraren fotokopia erkatua. Eskaerak erantzuna izan bada, ebazpenaren fotokopia erkatua (onartutako kopurua edo ukatzea); ebazpenaren zain egonez gero, horri buruzko adierazpena.

b) Eskatzailearen nortasun agiriaren fotokopia erkatua.

c) — Homologatutako euskalategi edo autoikaskuntza zentroaren jatorrizko ziurtagiriak: ikastaroan emandako urrats bakoitzari buruzko ezaugarri hauek adierazi beharko dituzte: hasteko eta amaitzeko data, emandako eta joandako irakastorduen kopurua, joandako orduen ehunekoarekin, urratsa gaingitu denetz, eta matrikularen kostua emandako urrats bakoitzeko bananduta. Barnetegi batera joan bada, kostua honela banandu beharko da: alde batetik klaseen guztizko kontua (era berean emandako urrats bakoitzaren kostua bananduz), eta bestetik, ostatuaren eta mantenuaren kostua.

— Udalerrian bertan udalaren partaidetzaz eraturako ikaskuntza taldeen jatorrizko ziurtagiriak: ikastaroa hasi eta amaitzeko data, emandako urratsak, emandako eta joandako irakastorduen kopurua, joandako ordu guztien ehunekoarekin, eta matrikularen guztizko kostua adierazi beharko dituzte.

d) Matrikula ordaindu dela egiaztatzen duen jatorrizko agiria, banku entitate batek emana.

e) Eskudun den administrazioak emandako ziurtagiria, foru ogasunarekiko eta gizarte segurantzarekiko zergak ordaintzen egunean egotea frogatzen duena.

6. artikulua. Eskabideak aurkezteko epea

Eskabideak aurkezteko epea 2018ko 1etik 30era bitartean izango da.

7. artikulua. Eskabideak aztertzea eta ebaztea

Eskabideak Aiarako Udaleko Euskara, Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzorde Informatiboak aztertu eta baloratuko ditu.

Udalbatzako alkate-presidenteak emango du behin betiko ebazpena, Aiarako Udaleko Euskara, Kultura, Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzorde Informatiboaren irizpenaren arabera.

Erabakiak laguntza onartu edo ukatuko du, eta ukatuz gero, arrazoia jasoko da.

Ebazpena zein ere den, azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, xedatutako kasuetan eta moduan aurkaratu ahalko da bera.

8. artikulua. Kontrola

Dirulaguntza ematen duen organoak nahi dituen administrazio kontrolak eta ikuskatzeak egin ahal izango ditu aurkeztutako dokumentazioan adierazitako datuak benetakoak diren eta laguntza jasotzeko baldintzak betetzen diren ala ez egiaztatzeko. Onuradunak ikuskatze horretan laguntzeko betebeharra du, eskatutako datuak emanez.

Arespalditza, 2018ko azaroaren 12a

Alkatea

GENTZA ALAMILLO UDAETA